


ANIMA: BEZEROAREKIKO HARREMANA



- Nola erakarriko ditugu bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko ditugu bezero horiek?

Aurrerago aipatu bezala, bezeroengana publizitatearen bitartez iritsiko gara, eta batez ere sare sozialetako publizitatean zentratuko gara, gure bezero mota nagusiak (pertsonek gazteak) bertan denbora asko iagrotzen baitute.

Bezeroek gure produktua erabiltzen jarraitzeko, beti saiatuko gara ahalik eta informazio fidagarriena eskaintzen, eta gure sare sozialetan bezeroekin harremanak ezartzen, beraien dudak erantzuten eta beraien nahiak astetzen. Gure sare sozialak beti eguneratuta eukiko ditugu ingurumena eta kutsaduraren inguruko informazioarekin, eta regularki egingo ditugu 'post'-ak, gure jarraitzaileak jarraitzen gaituztela ahaztu ez dezaten.

Azkenik, Instagram eta Youtube bezalako sare sozialetan gaur egun hain famatuak diren 'influencer'-ekin bateratzen saiatuko gara, pertsona hauei gure proiektua interesatzen bazaie, guri buruz hitz egiteko beraien jarraitzaileei. Honek gazteekiko eragin handia du, pertsona huen ematen dizkien gomendioak eta aholkuak oso-oso kontuan izaten baitituzte. Hontaz gain, bateratuko garen elkarteek ere guri buruz hitz egin dezakete beraien web orrietan edo sare sozialetan.

- Bezeroekiko harreman mota

→ LAGUNTZA PERTSONALA: Gure sare sozialetako mezularitza pribatuko zerbitzuetan gure bezeroen duda puntualagoak argituko ditugu, eta baita gure 'post'-en iruzkinetan ere. Hontaz gain, posta elektroniko bat ahalbidetuko dugu, non bezeroek beraien iradokizunak, proposamenak, duda handiagoak eta iritziak bidali ahalko dizkiguten, gero guk ikusi eta erantzun ahal izateko.

Bezeroak gure proiektuan integratuta sentitzeko, eta gure aldetik erantzun bat jasotzen dutela sentitzeko, beti saiatuko gara beraien iradokizunak kontuan hartzen eta funtzio berriak inplementatzen. Hontaz gain gure sare sozialetan inkestak egingo ditugu, gure bezeroen gehiengoak zer nahiago duen jakin dezaten.